

PROBA ESPEZIFIKOA

2017ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

ARTEAREN HISTORIA

B)



2. atala:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A.- Hiperrealismoa.

B.- Tenplu grekoa.



**EBAZPENA ARTEAREN HISTORIA
(2017ko maiatza)**

• **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

GALDEKIZUNEN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA

GALDEKIZUNA	EDUKI-BLOKEAK
1.a	2. blokea
2.a	1-6 blokeak
3.a	2. blokea
4.a	1-6 blokeak

1A atala:

Sailkapena, estiloa eta kronologia

“Laokoon eta haren semeak”

(K.a. IV. – I. m.)

Estilo greko helenistikoko eskultura. Rodasko eskola.

Rodasko eskolaren ezaugarria oreka formalaren eta idealismo klasikoaren galera da. Perfekzioa lortzen da mugimenduan, diagonaleko konposizioetan, gorputzen desorekan edo aurpegiaren dramatismoan eta tentsioan.



Analisi formala

Eskultura multzo exentu bat da, gorputz osokoa eta zutik irudikatua. Pertsonaia nagusia erdi eserita dago.

Marmolean zizelkatuta dago, baina originala brontze urtuzkoa zen. Arkitekturaz aparteko pieza bat da, ez baitago egina friso edo frontoi batean jartzeko.

Gainazal lau, fin eta leunez osatutako irudi bat da, gogortasun- edo leuntasun-sentsazioa ematen duena. Gainera, bolumen handi bat irudikatzen du, eszenaren mugimenduak eta tentsioak nabarmendua.

Multzoa aurretik ikusia izateko sortuta dago, eta ez ikusleak haren inguruan itzulia egiteko.

Erdiko pertsonaia, Laokoon, tamaina handiagokoa da, eta azterketa anatomikoagatik eta aurpegiagatik nabarmentzen da. Erdizka eserita dago; eserlekuan nolabait bermatuta dago, eta jantzi zurrun batzuk eserlekitik zintzilik daude. Eskuineko hanka makurtua dago, eta ezkerrekoa, berriz, atzeratua; hala, nabarmendu egiten da tentsioaren ideia.

Esan daiteke konposizioa trianguluarra dela. Alboetako irudiak, Laokoonen semeak, angeluan zabaltzen dira; hala, bertikaltasuna eteten dute.

Konposizioaren desoreka handia nabari da. Mugimendu behartua eta multzoaren tentsioa areagotu egiten du sugeen antolaerak, haien forma bihurgunetsuko eraztunen sigi-sagek aldi berean itxi eta irekitzen baitute multzoa.

Laokoonen gorputz biluzia azterketa anatomiko perfektua da. Atleta jada heldu baten anatomia da; ia gainbehera dagoen gizon bat da, baina muskulatura oso garatua duena (helenismoak bere-berea duen ezaugarria), bere bi semeen gorputz ez hain adierazkor eta klasikoagoekin kontrastea egiten duena.

Horrelako irudietan, aski ohikoa zen polikromia erabiltzea marmolezko piezetan. Elementu batzuk nabarmentzea zuen helburu; adibidez, ilea. Brontzezko irudietan, berriz, beirazko pasta erabiltzen da begietarako eta zilar arrosazko xafla finak ezpainetarako.

Analisi ikonografikoa

Obra honen gaia mitologikoa da. Jainko-jainkosen haserrea eta gizakiei ezar diezazkieketen zigorrak irudikatzen ditu. Indar ahaltsuen eta giza ezintasunaren arteko gatazka sinbolizatzen du.

Gaia Troiako Gerrako gertaera bat da, oso ezaguna, Virgiliok azaldua: Laokoon bere semeekin batera bi itsas sugek janda hiltzeko zigortu zuten



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

jainko-jainkosek. Ateneak bi suge bidali zizkion Laokoon apaizari zigor gisa patuari aurre egin izanagatik, zeren eta troiarrei jakinarazi baitzien grekoek tranpa bat sartu zietela hirian zaldiaren barnean.

Eskultura multzo honek Laokoonen istorioaren amaiera eta gailurra irudikatzen du; alegia, sugeek apaizagana eta haren semeengana oldartzen diren unea. Hor ageri da helenismoaren zaletasuna: une bati aplikatutako mugimendua irudikatzea, une labur bat, non mugimendua kontzentratu eta esfortzu edo min gorenera iristen baita. Agoniazko une hori Laokoonen muskulu guztietan marrazten den tentsioan islatzen da.

Testuinguru historiko-artistikoa

Garai helenistikoa. Filipe Mazedoniakoak Grezia menderatu ondoren eta haren mugak Alexandro Handiak irabazitako lurrei esker zabaldua, ideal grekoak eraldatu egin ziren Ekialdetik iritsitako ekarpen berriekin, eta, aldi berean, haren erreferentzia-zentroa zabaldu eta aldatu egin zen, zentro helenistiko berriek –hala nola Alexandria, Rodas, Pergamo eta beste asko– zuten pisuaren ondorioz.

Helenismoak balio kultural eta estetiko berriak adierazten bazituen, halaber ekarriko zuen grekoen ondarea geografian eta denboran oso urrun zeuden lekuetara hedatzea, erromatarren bidez, zeren eta erromatarrek, balio horiek bere egin zituztenez, Mendebaldean ere hedatu baitzituzten beren konkisten bidez.

1B atala:

Sailkapena, estiloa eta kronologia

“Ur-jauziko etxea” edo “Kaufman etxea” (1935)

Arkitektura zibila

Frank Lloyd Wright

Arkitektura: arrazionalismo organizista

Analisi formala

Etxea arkitektura organizistari dagokio. Wright-ek definitu zituen korrante horren ezaugarriak: eraikina eta natura integratzea, material berriak tokian tokikoekin integratzea, bezeroaren zaletasuna eta psikologia kontuan hartzea eta etxeak izan beharreko funtzioari ere erreparatzea.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Etxea ur-jauziaren gainean eraiki da, eta badirudi urak etxean bertan duela sorlekua. Hori ikusizko efektu bat da, baina bada entzunezko efektu bat ere, urak amiltzean ateratzen duen hotsa.

Tokiko harria erabiltzen du, harlangaitzezko aparailu irregularrarekin, elementu bertikaletarako. Terraza horizontal handietan hormigoizko armatua erabiltzen da, eta beirazko leihate handiak ditu, kolore gorriko egitura metalikoz hornituak; haien bidez, kanpoaldea integratu eta barnealdea argizatzen da.

Etxea gune zentral batetik egituratzen da: tximinia bertikala. Handik abiatuta, espazioa zabalduz doa noranzko zentrifugoan norabide desberdinetan antolatutako hormigoizko terraza bidez. Hala, goitik ikusita, gurutze-formako espazio baten efektua sortzen dute terrazek. Terrazetako plataforma horiek irudi plastiko eta eskultorikoa ematen diote.

Analisi ikonografikoa

Etxeak hiru solairu ditu:

Lehen solairuan (solairu libre gisa), hauek daude: areto handi tximiniadun bat eta sukaldea; eta amaieran, hegal-terraza bat dago, arroketan sartutako zenbait euskarritan eta zementuzko habe batzuetan bermatuta. Barnealdetik, ematen du ur-jauzia etxetik bertatik jariatzen dela.

Solairu horretako espazio zabalean, hormak eta tximinia harrizkoak dira; beraz, harrizko kanpoaldea barnealdean integratzen da.

Gainean, bigarren solairua dago, logela eta bainugelaz osatua, eta espazio zentrifugo gisa hedatzen da beste terraza batean, aurreko terrazarekiko perpendikularrean.

Hirugarren solairua txikiagoa da, estudio batez eta logela batez osatua, Kaufmandarren semearentzat prestatua. Solairu hori ere terraza batean hedatzen da.

Alegia, arkitektoak eraikina naturarekin integratzea lortu du, eta oso eraikin dinamikoa eraiki du, kontrastea sortzen duena hormen bertikaltasunaren eta terrazen horizontaltasunaren artean, eta harriaren kolorearen, elementu metalikoen kolorearen eta hormigoizko zuriaren artean.

Testuinguru historiko-artistikoa

Arrazionalismoan biltzen diren arkitektoek zenbait puntu komun dituzte: material berriak erabiltzea eta eraikinaren funtzioari garrantzia ematea, apaingarriak baztertzea eta bolumen sinple eta geometrikoen alde egitea.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Joera arrazionalista funtzional horretan dago Le Corbusier. Wright-ek, berriz, ikuspegi desberdin bat aukeratu zuen: arrazionalismo organizista deritzon joera da, japoniar arkitekturaren eragina izan zuena eta lehenago adierazitako ezaugarriak dituena. Hauek, alegia: material tradizionalak berreskuratzea eta berriekin batera erabiltzea, eraikina naturan integratzea, funtzionalitatea kontserbatzea baina gustuak eta pertsonen psikologia kontuan harturik, eta hirigintza horizontalari lehentasuna ematea etxe orratzaren bertikaltasunaren aldean.

2A. atala: Hiperrealismoa.

Hiperrealismoa pintura errealistatik Estatu Batuetan 1960ko hamarkadaren bukaeran sortutako joera bat da, errealitatea erreproduzitu nahi duena argazkilaritzak baino modu zehatzago eta objektiboagoan. Batzuean, fotorrealismoarekin nahasten da, zeina ez baita hain erradikala. Hiperrealismoak enkoadraketaren ikuspegi fotografikoarekin duen lotura eta eszena zehazki itzultzea atxiki nahi ditu pinturan. Gaiak, beraz, xehetasunen zehaztasun zorrotz eta inpersonalez irudikatzen dira, eta zolitasun optikoa hainbesteko birtuosismo tekniko egina dago, non gainditu egiten baita objektibo fotografikoaren "ikuspena".

Estilo horren ordezkari batzuek argazkietatik abiatuta lan egiten dute, zolitasun eta zehaztasun berarekin tratatuz koadro osoa.

Batzuetan, koadro-tamaina handiak eta pintura laua erabiltzen dira, handitze fotografiko erraldoien inpresioa sortu nahian.

Errealitatetik argazkira eta argazkitik koadrora joatea da, errealitatea bi aldiz berretsiz, edo, beharbada, objektutik bi aldiz urrunduz.

Hiperrealismoak ikusizko objektibotasun ustezko batera hurbildu nahi du erretratuak, natura hilak, barnealdeak eta paisaiak irudikatzean, teknika eta diziplina uztartzen dituen metodo berezi baten bidez.

Sintesi-diziplina bat da: obra gauzatzeko, baliabide infografikorik berrienak erabiltzen ditu, kolorea oso modu azalean aplikatuz, lausodura eta enpaste bidez, eta trebezia harrapatuz argia oihalean.

Obra hiperrealista on bat ikusten dugunean, irudikapenaren garaipenik nabarmenena dugu begi aurrean, ofizioaren eraginkortasunik handiena baita produkzio-metodo gisa eta errealitate ikusgaia bereganatzeko metodo gisa.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2017ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2017

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Baina egia da, halaber, ikusizko informazioaren asetasuna gertatzen dela: transkripzio objektiboari era horretan atxikitzeak zaildu egiten du, eskuarki, irudimenaren ausardia gehiago hedatzea edo jostatze kromatikoak erabiltzea erakutsitako irudien iradokizun poetiko beharrezkoei bide emateko.

Margolari hiperrealisten gai nagusiak hiri-paisaiak, erakusleihoak, automobilak, bizikletak eta gainerako kontsumo-objektuak izan ziren. Hauek izan ziren garai horretako artistarik gogoangarrienetako batzuk: John Salt, Robert Bechtle, Ralph Goings, Malcolm Morley edo Don Eddy. Haien obren oinarriak argazkiak izaten ziren, gero zehazki eta ezinago xeheki erreproduzituak.

Haren garrantzia ahulduz joan da estilo abstraktuaren aldean, bigarren mailako artetzat hartua izateraino. Izan ere, kritikari gutxik heldu diote hiperrealismoari, eta heldu diotenenek adierazi dute beren ustez joera hotza eta inpersonala dela, artistek beren argazki-kamerarekin egindako argazkiak gehiegizko zehaztasunarekin eskuz erreproduzitu besterik ez dutela egiten. Hala eta guztiz ere, kritikari askok aitortu egiten diote balioa fotorrealismoari, eta adierazten dute margolari hiperrealista onek duten talentua edozein kritikaren gaintik dagoela.

Pintura hiperrealistaren ezaugarrietako bat obren akabera garbi eta zaindua da: artistak zorrozki eta xeheki erreproduzitzen saiatzen dira, hala formari, nola argiari eta koloreari dagokionez.

Beste ezaugarri nabarmen bat ere badu: artistak ahalegina egiten du pintzelaren aztarnarik ez uzteko; izatez, hori da pintura hiperrealistaren erakusketetan maizenik komentatu ohi den alderdietako bat.

Pintura errealistak iraun egin du arte abstraktua nagusia izan den giroan; erraza da hori frogatzea, ikusi besterik ez baitago zenbat artista garaikide ari diren estilo horretan. Hiperrealismoak, bestalde, sendotzen jarraitzen du: arte-mugimendu horri hasiera eman zioten artista gehienek jarraitu egin dute beren obrak lantzen, aberasten eta dibertsifikatzen, eta artista-belaunaldi berriak batu gatazkie haiei.

Esan dezakegu, beraz, ez bakarrik hiperrealismoa ez dela desagertu, baizik eta hobetuz eta eboluzionatuz joan dela, artista talentudunen belaunaldi berrien ekarpenari esker.

Pintura hiperrealistari buruz, kritikari batzuek esaten dute obra hotzak direla, inpersonalak, subjektibitatek gabekoak. Lehenik, edozein obra egin aurretik, margolari hiperrealistek ideia bat sortzen dute, obra egitera eramango duena. Obra egiteko, beren argazkiak egiten dituzte, eta, urrats



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

horretan, erabakiak hartu behar dituzte motiboari, argiztapenari, konposizioari eta koloreei dagokienez, argazkilari batek egiten duen bezala.

Gainera, margolari askok aldatu egiten dugu argazkia pintura gauzatzean: batzuetan, agertzerik nahi ez ditugun xehetasunak kentzen ditugu; beste batzuetan, elementuak eransten ditugu, xehetasun txikiak, obrari bizia ematen diotenak eta estuki erlazionatuta daudenak artistaren nortasunarekin eta beraren bizipenekin, edo behatzaileari mezu bat komunikatzeko helburuarekin. Bigarrenik, kontuan izan behar da oihala ez dela argazki bat; obra gauzatzeko denbora asko behar denez, azkenean, artistaren nortasunaren eragina jasotzen du.

2B. atala: Tenplu grekoa.

Neurrian eta proportzioan oinarritu zuten arkitektura. Banako formen neurriak eta proportzioak, multzoan sartu ondoren, harmonia sortzen dute. Eraikinaren banako elementu guztiek proportzioan oinarrituta egon behar dute.

Grekoentzat, gauza guztien neurria, eta haien arkitekturaren eskala ere bihurtuko dena, gizakia da. Arkitektura-ordena grekoa giza eskalan oinarrituta dago.

Gizakiaren neurrian eta proportzioan oinarrituta dago harmonia, eta berak eratzen du arte-ekoizpen greko osoaren edertasunaren ideia. Grekoek edertasunari buruz duten ideien erreferentea gizakia da, eta ideia hori unibertsoaren azalpen arrazional batetik eratorria da.

Grekoek, eraikinak egiteko, adobe, zura, terrakota eta harria erabili zituzten. Eraikin zaharretan, grekoek adobe eta zura erabili zituzten. Geroago, harria nagusitu zen: kareharri gogorrenak, konglomeratua edo marmola. Lehen bi material horiek itzukur estali ohi ziren, gainazal finagoak lortzearen. Harlanduak ongi zizelkatzen ziren ezarri aurretik, eta ilara erregularretan antolatzen ziren, luze-zeharkako aparailuan eskuarki (horizontalean ezarritako harlanduak eta trebeska jarritakoak txandakatuta). Harlanduek ez dute izaten morterorik junturretan; horregatik, hondarraz marruskatuz leundu ohi zituzten ezarri baino lehen. Blokeak finkatzeko, zurezko ziri edo metalezko grapa bidezko sistema bat erabili ohi zen.

Tipologia arkitektoniko greko nagusia tenplua da. Tenplu grekoaren tipologiaren jatorria etxe mizenikoaren megaron-a da (erdiko areto kolomaduna): areto angeluzuzen bat da, aurrean kolomaz osatutako portiko bat duena.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Tenplurik zaharrenean eta gizakien gelen artean ia ez dago alderik. Pixkanaka, tenplua apainduz joan zen, forma monumentalak hartu arte. Bestalde, grekoek bereganatu egin zuten Ekialdeko herriek kolomari ematen zioten zeregin garrantzitsua, haren apaingarriak barne. Tenplua hiriaren arima bilakatu zen. Jainko edo jainkosa baten etxea da tenplua, edo, zehazki, jainko edo jainkosa baten estatuaren etxea, eta jarraitzaileek han ez zuten inoiz batzarrik egiten. Erlijio-zeremonia guztiak tenplutik kanpo egiten ziren.

Tenpluaren gunea edo elementu nagusia areto angeluzuzen bat da (cella edo naos-a); han dago gordeta tenplua eskainia dagoen jainko edo jainkosaren estatua. Esparru horren atearan aurrean portiko bat (pronaos-a) egoten da, albo-hormak bi pilastraz (antae-a) bururatuak dituen, atariaren albo banatan.

Tenplu monumentalek, gainera, koloma-portikoak izaten dituzte; batzuetan, lau alboetatik inguratzen dute (tenplu periptero-a), eta, beste batzuetan, fatxada nagusia (prostilo-a) edo nagusia eta opistodomosekoa (anfiprostilo-a) besterik ez dute hartzen.

Kolore-arrasto gutxi aurkitu direnez, badirudi tenplu grekoaren parte jakin batzuk baino ez zirela erregulariki margotzen, hala nola metopak, frisoak eta tinpano zizelkatuak; gorriak edo urdinak izaten ziren, edo, metopa gehienetan bezala, zuriz uzten ziren.

Eskulturak zenbait kolorez margotzen ziren. Kolomen fustea eta naosetako kanpo-hormak zuriz uzten ziren, eta badirudi gauza bera egiten zela kapitelen ere, iztukuz estaltzen zirenean izan ezik. Hala, modu eskultorikoan erabiltzen zen kolorea, tenpluaren parteak nabarmentzeko. Era horretan, modu nabarian areagotzen zen tenpluaren harmonia eta multzoaren efektua.

Tenpluko elementuak aldeztatik ezarritako arau batzuen arabera erabiltzeko eta ordenatzeko ordena deritzo, eta ordenak oinarritzeko hiru elementu ditu; idulkia, koloma eta entablamentua.